

Posidonia larreak.

Duela 300 milioi urte baino gehiago, landare fanerogamo bat, pixkanaka lurra utzi eta uretara egokitu zen. Milioika urtetan zehar, jatorri lurtarreko itsas landare hauek planetako ozeano epeletan nagusi izan ziren. Gaur egun 50 itsas fanerogamo espezie ezagutzen ditugu. Mediterraneoako espezie endemikoa *Posidonia oceanica* da. Algek ez bezala, Posidoniak sustraiak, zurtoina, hostoak, loreak, fruituak eta haziak ditu. Bizitzeko ur garbiak, ondo oxigenatuak eta kutsadurarik gabeak behar ditu, eta 17-20 °C-ko tenperatura. Horizontalki zein bertikalki haz daiteke. Horizontalki hazten bada larreak eratzen ditu, eta bertikalki, 2 metro inguruko luzerara irits daitezkeen laharrek. Itsasertzeko zenbait eremu babestutan hostoak gainazalera iristen dira, eta hesi-uharriak bezala ezagutzen ditugunak eratzen dituzte. Oso poliki hazten da, milimetro bat inguru urtean. Belardi zabalenetako batzuk 6000 urte baino gehiago dituzte. Posidoniak ia itsasertzean bertan eremu harkaitzsuak aukeratzen ditu, edo inguru hareatsuak 6 metroko sakoneratik aurrera, olatuek eragingo ez dioten lekuak. Landare bat denez, beharrezko du eguzkiaren argia fotosintesia egin ahal izateko, beraz ezin du hondo sakonegietan, 35 metrotatik aurrera, edo gaizki argiztatuetan bizi. Posidoniak funtzio ordezkaezina betetzen du Mediterraneoan. Ura oxigenatu eta garbi mantentzen du. Bere hostoak babes eta elikagai dira landare zein animalia espezie ugarirentzat. Sustraiak itsas hondoa egonkortzen dute ekaitz garaietan hondartzetako sedimentua eusten duten benetako urpeko dike biziak bailiran. Gizakiaren eraginak erraz kaltetzen ditu Posidonia larre hauskorrak. Hazteko milaka urte behar izan dituzten larreak kaltetu edo guztiz desagertu dira kostaldeko eraikuntza masibo, ur zikinen isurketa edo legez kanpoko arrantza dela eta. Posidonien galera ekiditeko ekimenen ezberdinak sustatu dira. Posimed programak, Campello-ko Kostaldeko Ekologia Institutuak koordinatua, Espainiar mediterraneoan zehar independenteki garatu diren Posidonia oceanica-ren kontrol kanpainak batzen ditu. Borondatezko lan sare honen asmoa Posidoniaren egoera kritikoaz kontzientzia hartu eta larreen egoera ebaluatzea da, hauen hondatzea geldiarazteko ekintzak martxan jartzeko. Larreen kontserbazio egoera neurtzeko, borondatezko murgilariak m²-ko sorta dentsitatea eta estaldura neurtzen dute. Sakonera ezberdinetan egiten dira murgilaldiak, eta kostaldeko hainbat eremutan eta urte sasoi ezberdinetan, larreen egoeraren arteko konparaketa egiten da. Jarraipen kanpaina irekia dago parte hartu nahi duenarentzat, bai murgilari gisa, bai laguntzaile gisa baita laborategian ere, jasotako laginak aztertzen ere. Ikerketa hauen emaitzek arriskuan aurkitzen diren larreak ezagutzeko balio dute, eta urpeko baso hauek kontserbatzeko beharrezko diren ekintzak aurrera eramateko.